

EUSKAL ENPRESAK POLONIARA ABIATUKO DIRA NEGOZIO AUKERA BILA

Donostia - 2015ko Irailaren 25a - Hamabi euskal enpresek parte hartuko dute Poloniara abiatuko den misio komertzialean. Misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misio komertziala irailaren 28a eta urriaren 2a bitartean egingo da eta kontsumo produktoak eta industria-ondasunak fabrikatzen dituzten enpresei bideratuta dago. 12 enpresek parte hartuko dute, 10 gipuzkoar eta 2 bizkaitar. Misio honen helburua euskal enpresak bertako enpresekin harremana lortzea izango da Poloniako merkatuan sartu ahal izateko.

Polonia

Polonia, Europar Batasuneko herrialde bakarra da gaur egun jasaten ari garen krisialdi ekonomiko honetan atzeraldia izan ez duena. Industria sektoreak Poloniako ekonomiaren oinarrietako bat izaten jarraitzen du, eta datozen urtetan ekipo ondasunak, material elektrikoak eta horniketakoak inportatzeko beharra izaten jarraituko du.

Poloniako per cápita erosahalmen-parekotasuneko BPGDa Europar Batasuneko %50,5ren bat az bestekoa izatetik (2004ean Batasunean sartu zen urtean) %67,8 izatera pasa da (2013an). 2012koa baino %2,3 altuagoa. Nabarmenezkoa da ere, Polonia Erdialdeko Europako merkaturik handiena dela, 38 miloi biztanle baino gehiago dituen barne merkatu bat du, honek Europar Batasun osoaren biztanlegoaren %7,6 inguru suposatzen duelarik.

Poloniara egindako esportazioen bilakaerari dagokionez, azken urtetan positiboa izan dela esan daiteke, %17ko hazkundearekin 2014ean eta antzeko hazkunde batekin 2015eko lehenengo seihilekoan. 2014ean eta 2015eko lehenengo seihilekoan Poloniara esportatutako produktu nagusienak honako hauek dira: ekipo-ondasunak eta makineria (%40), ibilgailuak eta hauen zatiak (%24) eta metalaren beste manufakturak (%14).

ESPORTAZIOAK							
	2013	2014	bilakaera		2014	2015	bilakaera
Probintzia	balioa (mila eurotan)	balioa (mila eurotan)		Probintzia	(1º seihilekoa) balioa (mila eurotan)	(1º seihilekoa) balioa (mila eurotan)	
ARABA	60.141,08	79.982,98	%133	ARABA	39.554,12	39.554,12	%103
GIPUZKOA	153.179,19	199.999,03	%131	GIPUZKOA	86.354,61	113.926,88	%132
BIZKAIA	126.721,54	119.031,54	%94	BIZKAI	62.816,82	65.597,72	%104
GUZTIRA	340.041,81	399.013,55	%117	GUZTIRA	188.725,55	220.166,62	%117

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347